

ERDU PRESS

ARRIETA • FRUIZ • GAMIZ-FIKA • MEÑAKA

EUSKARA ZERBITZUA

28. zk.

2007ko urria

GUSTUKO LEKUAN ALDAPARIK EZ



IKASTAROAK HAN-HOR-HEMEN ETA GUREAN BE BAI !!

Geure herrietan, bertan, asago joan barik, zenbat gura ikastaro daukogu martxan hasita.

Gorputza zein burua osasuntsu euki gura dauzanak hor daukoz gimnasia, aerobic, yoga, pilates, memoria lantzeko ikastaroa, esku lanak, pintura ...

Geure herriko hizkuntza ikasi zein hobetu gura dauzanak euskara eskolak. Badagoz be euskal tradizio eta kulturagaz lotutako hainbat ikastaro/tailer: euskal dantzak, euskal kankak, esku pilota...

Kanpoko hizkuntzak ikasteko ikastaroak be ugaritu egin dira aurten, eta ingelesaz gainera frantsesa be ikasteko aukerea dago.

Eta amaitzeko jakanena be jatun bihurtuko leukeen hainbat sukaldaritzak ikastaro.

Ezin esan ba non aukeratu ez dagoenik!



Meñakan, urriak 27an (zapatua), **“TAKET bertsolarien ibilerak”** liburuaren **AURKEZPENA** egingo da, eguerdiko 12etan. Liburuaren nondik norakoen barri emoteko Xabier Amuriza, Luis Baraiazarra eta Asier Legarreta eukiko doguz. Aurkezpenaren ostean Amuriza eta Peñagarikano bertsolariak eta herri bazkaria egongo da. Txartelak herriko tabernan, Elizondo jatetxean eta udaletxean dagoz salgai.

**AUTO BAKO EGUNA GAMIZ-FIKAN ETA ARRIETAN**

Auto bako eguna ospatu eben Arrietan irailaren 21ean eta Gamiz-Fikan irailaren 22an. Arrietan plaza zarratu zen autoentzako eta hainbat ekintza antolatu ziran. Gamiz-Fikan oinezko ibilaldi bat egin zen goizeko 10:00etan eta ondoren hamaiketako eta mendirako makila eta bizikleta zozketak.

FRUIZKO UDALAK ANTO-LATUTAKO “LIBURUTEGIA

DANONA” ekimena martxan da daborduko; aitatu ekimenari azaroaren 24an (zapatua) emongo jako amaiera, egun horretan arrastiko 18:00retan, lehengo eskoletan, ITZAL ANTZERKIA ikusteko aukera paregabea izango dozue bertaritzen zareen guztiok; ikuskizunaren ostean, jai txiki bat eta sari banaketa egingo da.

**HASI DIRA MEÑAKAKO LIBURUTEGIAN ASTEBURUETAKO TAILERRAK.**

Tailerrak egingo dira zapatuero Meñakako udal liburutegian, goizeko 11:00etatik eguerdiko 13:00etara, 6-12 urte bitartekoentzako. Etorri zaitetz, zain gaituz; izan be, ba ote aukera ederragorik zapatu goizak lagun artean, giro ezin hobean, ondo eta ikasiz pasatzeko?

URIBE-BUTROE ZERBITZU MANKOMUNITATEA

Arrieta, Bakio, Fruiz, Gatika, Gamiz-Fika, Laukiz, Meñaka eta Maruri-Jatabe udalerriek “Uribe-Butroe Zerbitzu Mankomunitatea” osatu dabe. Mankomunitatea eratzearen arrazoi nagusia herritarrei eskaintzen jakezan zerbitzuak hobetzen joatea izan da. Uribe-Butroe Zerbitzu Mankomunitateak bere gain hartu dauan lehenengo egitekoa Hondakin Solidoen Kudeaketari jagoko. Maruri-Jatabeko udaletxea da gaur-gaurkoz Uribe-Butroe Zerbitzu Mankomunitatearen egoitza.

FILM LABURRAK EGITEKO IKASTAROA

Film laburrak zelan egiten diran ikasteko aukerea egingo da azaroan Arrietan. Ikastaroa 14-30 urte bitarteko gazteei zuzenduta dago. Izena emoten dabenek zapatu bitan jardungo dabe “laburrak” egiteko jakin beharreko guztiak ikasten. Film laburren ikastaroa azaroaren 17an eta 24an egingo da, eta ordutegia 17:00etatik 21:00etara.

Izena emoteko azken eguna azaroaren 9a (94 615 31 14). Gazte, animatu zaitetz!! Gauza politak egiten ikasteko balioko deutsu-ta!

FRUIZ

FRUIZKO UDAL LIBURUTEGIA ALTXORREZ BETERIK



Fruizko herritarrak altxor bila arituko dira urrian eta azaroan udal liburutegian, izan be, noiz eta zelan ez daki-gula, adin eta gustu guztikoentzako altxor ederrez beterik agertu da herriko liburutegia.

Bi hilabetez ibiliko dira fruitarrak altxor bila eta altxor-bilatzaile guztiek euren aurkikuntzen barri emongo deustie gainerako herritarrei, dan-danok jakin daigun ze gauza ederrak gordetzen diran hango apaletan.

Ez ezazu aukerea galdu eta zuk be egizu osteratxo bat liburutegira arrastiko 17:00etatik 19:00retara.

Azaroaren 24an altxor-bilatzaile guztiok opariz eta sos-presaz beteriko jai eder-eder bat egingo dogu Fruizko liburutegian.



TXAPELA BURUAN ETA IBILI MUNDUAN !!!

INGELES A ET A FRANTSESA IKASTEKO AUKEREA FRUIZEN



Urriaren 15ean hasiko dira hizkuntza eskolak Fruizen, hona hemen egunak eta orduak:

Ingelesa: astelehenetan, 19:00etatik 21:00etara, lehengo eskoletan.

Frantsesa: eguaztenetan, 19:00etatik 21:00etara, lehengo eskoletan.

MEÑAKA



“Uztaileko jokoetan 4-12 urtera birtarte-koak batu ziran Meñakan. Talde polita osatu eben. Ikusi, ikusi zelango harrobia daukogun herrian!”



“Aurtengo San Juanak be primeran joan dira”

“Olgau eta ikasi... danerako astia euki genduan”



“Hanka biko, hiruko zein lauakoak... Dan-danak ederto batean udako jokoetan”

GAMIZ-FIKA



Danetarik egon zan Gamizko azokan



Peñen eguna: zuri-gorritz jantzi zan herria



Peñen eguna: frontoi bete lagun



Sasoi-sasoian San Antolinetan egon ziranak



Argazkilaria: Alfredo Gonzalez

GAMIZ-FIKAKO VII. MENDI IBILALDIA

Urriaren 7an egin zan Gamiz-Fikako mendi ibilaldiaren VIII. edizinoa. Antolatzaileak pozik dagoz; izan be, eguraldi ona lagun, inoizkorik arrakastatsuen eta jentetsuen izan da aurtengo ibilaldia. Aurtengo barrikuntza izan da txikientzako ibilbidea be egongo dala. Txiki eta handien artean, guztira, 350 lagun batu ziran ibilaldian. Eskerrak emon gura deusiez antolatzaileek parte hartu eta lagundu daben guztiei!!!

ALKARRIZKETA

FERMIN JUSTO LARREA, Arrietako KIPUTZENE baserrikoa. Artzaina ofizioz eta afizioz. Ezin izan besterik, artzaina eukon aita, artzaina aitite, artzainak aitite-amamen aurrekoak; antza danez, aitite-amamen aurrekoak Gipuzkoa aldetik etortzen ziran ardiakaz Arrieta eta inguruetara; Arrietan lo egiteko eta pastoreek eukiten ebezan horretariko txabolatxu bat eukeen, gerora, batetik bestera ibiltzeari itxi eta Arrieta bizileku bihurtu zan eta Fermin Justo eta senideak Kiputzenekoak.

Aite, aitite... artzainak izanda, zu zeu be derri-gor artzain izan behar, ezta?

Ba bai, bizimodu osoan ardiak jagoten ibili naz. Zazpi urte neukazala gure aite Ameriketara joan zan, pastore, eta neuk jarraitu neuntsan ofizioari hemen.

Zeintzuk izaten dira artzain batek egin beharrekoak?

Urtarrila-otsailean ardiak apartatu, lekuetan jarri, euren bildotsakaz. Otsaila-martian, batez be, lehen gaztaia egin eta esnea asaldu. San Juanetan lanea kendu. Carmenetan bildotsak apartatu. Eta holantxe...

Artalde handia daukozu? Zenbat ardi daukozuz gitxi gorabehera?

Askotzarik ez, 250 ardi inguru. Eta udabarritik oraintxe arte, San Martinetararte, Solluben eukiten dodaz.

Eta gero?

Lehen Mundakara joaten nintzan neguan ardiakaz. Azken 13 urteotan, ostera, Larraurin eukiten dodaz sei bat hilabetez.

Eta horreek ardi guztiak manejatzeko lagun bat nahikoa da?

Bai, bai, ez da ba lagun

bat nahikoa izango! Hori bai, lagun bat baina txakurragaz. Artzainak ezinbestekoak dauz txakurra eta makilea. Lehen zaldia be erabiltzen genduan, zaldiz joaten eta zaldiz ibiltzen ginan ardien atzetik; gaur egun, ez. Artzain txakur bat nahiko izaten da nirea moduko artalde bat manejatzeko.

Artzain txakurrari erakutsi egin behar izaten jako?

Bai, bai, artzain txakurrak sena euki badauko baina erakutsi egin behar izaten jako; batzuk beharrerako sen handia eukiten dabe, berezkoa eukiten dabe eta txiki-txikitatik, hasiera-hasieratik izaten dira oso onak, baina halanda be apur bat erakutsi egin behar izaten jakee: ikusi egin



behar izaten dabe zelan egin daben behar, artzainagaz ibili eta artzainaren agin-duetara ohitu. Normalean, artxain txakurrei urte eta erdi edo urte bi daukienean erakusten jakee beharren.

Artaldeko ardi guztiak ezagutzen dozuz?

Bai, bai, bakoitzak bere gauzatxua dauko, bata “mizkina”, bestea “lapurra”, bestea... Baten bat falta ezker, momentuan berean ez, baina hurrengo egunean edo bai, igartzen dot faltea eta jakiten dot zein dan falta dana.

Arranik erabilten dabe?

Bai, arrana mantsoenari ipintzen jakee. Nik 10-15 ardiri ipintzen deusiet kanpaia, barrutirako, pasturako; basorako ez, galdu egiten jakeez eta.

Lanea, artilea, noz kentzen jakee? Zeuk kentzen deustazue? Zer egiten dozu gero laneagaz?

Bagilean, San Juan egunaren bueltan; eta bai, neuk kentzen deusiet, eskuz, eta egunean, suabe-suabe joanda, 30 bat ardi egiten dodaz. Eta



laneagaz zer egiten dodan? Ba, saldu, hori bai, ia debalde, lehen artilea ondo estimadu eukiten zan, eta ondo pagetan zan baina gaur egun inork ez dau gura eta txakur bigaitik emoten dogu, eta pozik eroan egiten deuskuela eta.

Ezin pastoretzatik aberastu, orduan?

Aberastu? Zera, aberastu! Ofizio honetan gagoz gustatu egiten jakulako, ez beste ezergaitik. Aurten ez dot apenas esnerik saldu. Otsailamartia izaten da esnea saltzeko sasoia, erosleak etxera etortzen jataz eta badakizu... batzuetan hor datortzuz danak batera eta beste batzuetan inor bere ez. Eta ardiak ez jatuz bedarragaz bakarrik hazten alfalfa eta pentsua be emon behar izaten jakee. Eta txarrena zera da ardiek gaixotasunak be eukiten dabezala, gaixotasun zabalduena birikietako gaixoa izaten da eta nik horretan egia esan aspaldian ez dot zorte handirik euki, hainbat ardi gaixotu jataz eta.

Gainera aurten, luki asko ibili da, inoizkorik gehien, bildots jaiobarriak geure aurrean eroaten izan deuskuez ia. Solluben 7-8 sai ibili izan dira, inoiz ez dogu horrenbeste ikusi, artaldearen gainean buelta-bueltaka zer harrapatuko begira.

Artzaintzari ze etorkizun ikusten deustazu? Erreleborik bai?

Tira, kontua ez dago hain txarto be, badagoz, badagoz, gazte batzuk interesa daukiena eta ofizioa ikasten dabizena. Artzain Eskola bat be badago eta gugana be etorri izan dira gazteak gugaz egon eta pastoretza zer dan bertatik bertara ikusi eta ikasteko.



Arrieta, Fruiz, Gamiz-Fika, Gatika, Laukiz, Maruri-Jatabe eta Meñakako Udaletan, irailean, URIBE BUTROEKO MINI OLINPIADAK egin dabez. Mini-Olinpiadak 14-30 urte bitarteko gazteei zuzenduta egon dira eta iraileko asteburuetan egin dira. Proiektu hau Gazte Planaren barruan dago eta helburuen artean honakoak azpimarratuko geunkez: udalerrien batasuna, herriak ezagutaraztea, udalerrietako aisialdirako azpiegiturak ezagutaraztea eta batez be, gazteriarri aisialdi jarduera bat eskaintzea, gazteek alkarren barri eukitzea eta alkarregaz ekintzak egin eta hartu-emonak sendotzea.

Mini Olinpiadetan parte hartu daberen gazteek honako ekintza hauek egin behar izan dabez: Lego Eraikuntza eta ur gaineko kortxoak (Maruri-Jataben), Txalupa lasterketa (Gatikan), Volley-Ball eta puzzle urperatua (Fruizen), Euskal Kirolak (Laukizen), Altxor ezkutua (Meñakan), Goitibeherak (Arrietan) eta Adimen azkartasuna eta Herri bazkaria (Gamiz-Fikan).

Hona hemen URIBE BUTROEKO MINI OLINPIADETAKO argazki batzuk:



Uribe- Butroeko Mini Olinpiadak



**Fikan buruari eragiten:
Honeek dira honeek galderak!!!**



**Arrietan
Goitibeherak prestatzen**



**Fruizen
Waterpolo
egiten**



Kendu, kendu, banoa ta !!!

Eta olinpiadeei
amaiera emoteko...
gazteen arteko
bazkaritxo!! Gamizen



Parte hartzaileek eginiko
txalupetan osteratxoa
Gatikan

Uribe- Butroeko

Mini Olinpiadak



Meñakan, non ete
dago altxorra?



Aurtengo Uribe-Butroeko Mini-
Olinpiadetako irabazleak (eskuman)
Udaletako agintari batzukaz



Asteburu
kulturalen ezin
libururik falta



Margolari talde polita batu zan
margo lehiaketarako



Pedro Mari 'Txepetxa' ren astoa izan
zan Arrietako asto probetako irabazlea



Arrietako morroskoak be ahalegindu
ahalegindu ziran baina...

Uztaileko
joko eta
jolasak



Ermitetatik ibilaldia egin zan abuztuan



Idi Probak Jainkon



Rafa Rueda eta Arkaitz Basterra,
Arrietan 'Agian' film ederra aurkeztu
euskuen egunean

A
R
R
I
E
T
A

UMEEN TXOKOA

“Ondasunik handiena, adiskide ona” dino esaera zaharrak,

- 1.- Konforme zagoz goiko esaera horregaz?
- 2.- Zertarako behar izaten doguz lagunak?
- 3.- Zer da lagunengandik gehien estimatzen dozuna? (alaitasuna, zintzotasuna, ausardia, lagunaren lagun izatea, entzuten jakitea, umorea...)
- 4.- Zein da lagunekaz ondoen pasatu dozun eguna? Ze egin zenuen?
- 5.- Zein izan leike lagun bategaz hasarretzeko arrazoia?



ARRATE LLAGUNO
(FRUIZ), 10 URTE

- 1.- Bai.
- 2.- Jolasteko, laguntzeko eta beraingandik gauzak ikasteko behar izaten doguz.
- 3.- Zintzotasuna, lagunaren lagun izatea, ausardia eta alaitasuna.
- 4.- Nire urtebetetzean, ekainak 9an. Asko jolastu genuen, gozo askaldu eta ondo pasa.
- 5.- Errespeto falta izatea nirekiko.



AITOR AHEDO LAHORE
(GAMIZ-FIKA), 9 URTE

- 1.- Bai, adiskide on bat izatea benetako altxorra da.
- 2.- Jolasteko, hitz egiteko.
- 3.- Alaitasuna eta, batez be, zintzotasuna.
- 4.- Hondartzara joan ginen baten. Haritz deituriko lagun bategaz joan nintzen eta oso ondo pasatu genduan jolasten, bai olatuekaz, areagaz, e.a.
- 5.- Iraindu izana.



MATXALEN ALAYO ZARATE
(MEÑAKA), 6 URTE

- 1.- Oso konforme.
- 2.- Jolasteko eta hitz egiteko.
- 3.- Lagunen lagun izatea eta entzuten jakitea.
- 4.- Ekainaren 29an, igeri asko egin nuelako eta pisizinan karrerak egin genituelako.
- 5.- Ez badost kasurik egiten, beragaz haserretuko nintzen.



ITZIAR ETXEBARRIA
ELORDI (ARRIETA),
8 URTE


- 1.- Ez, ondasunik ez daukie zerikusirik. Diruak ez dau axola, pertsona zelangoa dan da jakin beharrekoa.
- 2.- Lagunak disfrutatzeke egoten dira, bakarrik ez egoteko. Baita gaizki pasaten gogozanean gugaz egoteko eta beraiek ahal daben moduan laguntzeko.
- 3.- Zintzotasuna, ez jata gustatzen lagunak gezurrak esatea; nik beti egia osoa esatea gura dot. Baita beraien umore ona be. Benetako lagunek gauza asko daukiez.
- 4.- Maiatzaren 19an Zarautzera egindako eskurtsioan. Egun osoan lagunakaz hara eta hona ibili ginan, lo, jan, jolastu eta beste hainbat gauza. Hondartzan oso ondo pasatu genduan, oso olatu handiak egon ziran eta denbora guztia uraren barruan pasarte genduan.
- 5.- Zirikatzen eta jotzen ibiltzea. Ez jata gustatzen bape. Horretarako lagunak ez dira behar, ondo pasatzeko baizik.

DENPORA-PASAK

Jeroglifikoak



Zelan dago zerua?



Zelan ikasi behar da euskara?

- Zeri esaten jako ZERUKEA? Galdetu etxean, auzoan, eskolan... Hona hemen laguntzatxo bat, nondik tiratu jakin daizun.



ESAERA ZAHARRAK

- Beharrak beharra ereiten du.
- Bururik ez duenak, txapel beharrik ez.
- Gaueko beharrak, egunez agertu.

Gotzon Garate, Esaera zaharrak.

TXISTEAK

Mozkor bat kale erdian dago etzanda eta ez deutsee ixten autoei pasatzen.

Polizia etorri da eta zera dinotso:

- Altxa zaitez! Ez dozu ikusten ez deutsezuela autoei pasorik ixten?
- Bai, baina hemengo etxe guztiak bueltaka dabilz eta hemen paratu naz neurea agertuten danean bertara salto egin eta sartzeko.

(www.euskaraz.net)

**ZENBAKI HONETAN
PARTE HARTU DABE:**



**OLATZ AXPE
ALFREDO GONZALEZ
ZURIÑE GOTI
NEREA MALLONA
ELIXABETE URIARTE**

IÑAXIO ETA EMILIO

Iñaxio eta Emilio ba... barberuek eta zapateruek, eta astelehenak egiten zituezan jai. Eta joaten ziran Bilbora ba... erremintak zorrotzu, edo narrua erosi edo horrek egiten eta... autobusean. Etorri zan abadea, Don Isidoro, eta han sartu zan autobusera eta pre-gunta eutsien ia nora doazen, eta Emiliok esan eutsan:

- Nora? Narrutan!
- Hori da errespetoa –esan eutson abadeak- Hori da errespetoa, lotsatu ez zara egiten hori esaten?
- Baaa! Guk narrua behar dogu eta narrutan goaz gu!!

Andoni Uriarte, Fruiztarrak berbetan
(moldatuta)



**ARRIETA • FRUIZ
GAMIZ-FIKA • MEÑAKA**

**EUSKARA ZERBITZUA
ZURE ESKU**



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**
HIZKUNTZ POLITIKARAKO SAILORDETZA



**BFA
DFB**
Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia
Kultura Saila
Departamento de Cultura